

# HERNANIK kronika

2004 urtea  
Abenduak 22  
Asteazkena  
Alea: 1329  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

## 'Ilargiaren Sekretua' umeentzako filma Biterin botako dute abenduaren 27 eta 28an

**Hernaniarren lana:** Gidoia Maialen Lujanbiok idatzi du eta Niko Lizeaga da filmeko aktore nagusietako bat.

**ILARGIAREN Sekretua**, haurrentzat euskeraz egin den aurreneko filma Hernanin botako dute datorren astea, Bai Euskarari taldeak antolatuta. Hiru gaitzok munduko lore guztiak bere egin dituzte eta ilargiaren sekretuaren jabe dira. *Pirritx, Porrotx eta haur talde batek basamortuko adiskide berriari lorea bilatzen lagunduko diote, bere arreba sendatzeko.* Filmean pisu haundia dute hernaniarrek. Gidoia Maialen Lujanbiok egin du eta Niko Lizeaga da aktoreetako bat. Tibu Iradi ere aktore izan da eta zenbait eszena Jauregi bailaran grabatuak dira.

### Arrakasta haundia

Hik Hasi euskal heziketarako aldizkariak ekoiztutako filma da. Joxe Mari Auzmendi koordinatzailearen hitzetan 20 bat lekutan bota dute da-goeneko eta 7.000 lagun bai-

**Hiru emanaldi:** Biterin 3 emanaldi izango dira: abenduaren 27an, 16:30etan eta 18:30etan; eta abenduaren 28an, 11:00etan.

**Sarrerak Leten:** Sarrerak salgai daude dagoeneko, Lete liburudendar, Kale Nagusian. Prezia 2 euro da.



Ilargiaren Sekretua filmeko arduradun, gidoigile eta aktoreak, Bai Euskarari ekimeneko kidearekin.

no gehiagok ikusi du Euskal Herri osoan. Deiak, ordea, herri askotatik izan dituzte eta orain baldintza errazagoetan ari dira ematen, ahalik eta jende gehienarengana

iristeko. Imanol Beroiz Bai Euskarari taldeko kidearen hitzetan haurtzaroan hizkuntza lantzeak garrantzia beretza du eta "produktu interesgarri hau" hargatik eka-

rri dute Hernanira.

Umeentzako katalogatutako film hori publiko guztia-rentzat egokia dela nabarmendu dute, "5 urtetik 105 urtera" beren hitzetan. □

### JOXE MARI AUZMENDI

(HIK HASI-EKOIZLEA)

**"Umeentzako euskeraz egin den lehen filma da guk dakigula"**

Hik Hasiko ordezkariek filmarren garrantzia azpimarratu du, euskeraz umeentzat irudi errealez egindako lehenengoa delako. Irudi mailan hutsune hori badagoela dio eta filmak etekin haundia ateratzeko aukera ematen duela. Lehen-dik baditu Hik Hasik 2 bideo atereak jolas eta kantekin, baina lehen filma hau izan da.

### MAIALEN LUJANBIO

(BERTSOLARIA)

**"Oso aberasgarria izan da niretzat umeentzako gidoia egitea"**

Maialen Lujanbio bertsolari hernaniarrak egin du gidoia. Bere hitzetan zaila eta aberasgarria izan da umeentzat gauzak egitea, "arrazoik helduentzat pentsatzera ohituta baikaude eta gero eta harreman txikiagoa dugu umeen munduarekin". Pelikulako aktoreek emandako laguntza azpimarratu du.

### NIKO LIZEAGA

(AKTOREA)

**"Talde lan ona egin dugu oso eta filma egiten asko dibertitu gara"**

Niko Lizeaga aktore hernaniarrak dio filma berezia izan dela beretzat, batipat 2 gauzagatik: batetik inoiz ez zuelako propio umeentzako horrelako gauzarik egin, "nahiz eta seme alabekin askotan tokatu Takolo, Pirritx eta Porrotx ikustera joatea". Eta bestetik, giro ona eta talde lan haundia izan dutelako.

### PORROTX ETA AMONA JOXEFINA

(PAILAZOAK)

**"Filmak paiasogintzatik kanporako beste lan bat eskatzen du"**

Porrotx eta Amona Joxefinak ondo ezagutzen dituzte umeak, beste protagonistek baino hobeto seguru asko. Film mundua, ordea, berria da berentzat eta gidoia egin eta egokitzeak paiasogintzatik kanporako beste lan bat eskatzen duela diote. Talde lana nabarmendu dute hauek ere.

Iturriaga, 3 - 943 556 564 - HERNANI

MARI FE  
ARRANDEGIA  
ORDUTEGIA  
GOIZLAN: 8:00 ~ 14:00  
ARRATSLADEAN: 16:30 ~ 20:00  
NACUSIA 36 943 550 489

Iñaki Alkorta  
barne diseinua  
opariak,  
konplementuak...  
Kardaberaz 39 - [www.inakialkorta.com](http://www.inakialkorta.com) - 943 335431

## Udal aurrekontua Plenora gaur

2005ERAKO udal aurrekontua gaur eztabaidatuko da Pleno bezei batean, 12:00etatik aurrera. Gobernuak (EA-EAJ, eta EB) 21.507.353 euroko aurrekontua proposamena egin du. Bildu Hernani eta PSE-EEk osoko zuenketak jarri dizkiote. PPk, berriz, emendakin partzialak egin ditzio. Ongintza eta Kirol Patronatuetako aurrekontuak ere eztabaidatuko dira gaur.

### PP: lurra erosteko partida

Alderdi Popularrak 2005erako aurrekontuetan diru partida sartzea eskatu du babes ofizialeko etxeak egiteko lurra erosteko. Beste emendakin batean, Inmigrazio gaietako proiektuetarako esku du 30.000 eurotik 50.000 eurora igotzea aurrekontua.

Hasierako aurrekontu proposamenari Joxan Rekondo Alkateak berak ere beste puntu bat erantsi dio. Txotx denboraldi hasierarako 9.000 euro sartu eta txotx garaiko ekintzitarako 15.000 euro sartzea proposatzen du.

Gaurko Pleno bereziak beste 11 puntu ere baditu gai ordenean. □

## Ipui kontalaria gaur

LUR Korta Udal Liburutegian arituko da umeentzako ipui kontari. Beti bezala, bi saio izango dira. 17:30etan 3-4 urteko umeentzat eta 18:00etan, 5-7 urtekoentzat. □

## Lan munduari buruzko mahaingurua gaur

DOBERA Sariko ikerketaren barruan, mahainguru irekia egingo da gaur Larramendin, 19:00etan (ez Biterin), lehengo eta oraingo lan munduari buruz. Garai ezberdinak zenbait langile eta langile ordezkarri bertan izango dira. □

## Kabalgatako bilera gaur

GAUR 20:00etan Biterin, Errege Kabalgata antolatzeko bilera. □



Bai Euskal Herriari ekimenari babesera eman dioten herritarra, ekitaldi publikoan.

## ENHA egiteko kanpaina martxan

BAI Euskal Herriari ekimenak ENHA egiteko kanpaina jarri du martxan eta Hernanin 2.000 egitea da helburua, erabilpenari begira pauso berriak emateko. "Gure helburua tramitazioak iraunkortu eta euskaldun bezala bizi zeko deia luzatu nahi dugu.

ENHA erabiltzeko deia hain zuzen ere" diote ekimenaren bultzatzaleek. Era berean, "Gu euskaldunak gara, eskubide osoko euskaldunak" adierazi dute, eta "gure eskubide zibil eta politikoak errespetatzea" eskatzen dute. Bai Euskal He-

rrari ekimenak bi eratara bultzatuko ditu EHNAren tramtazioa. Batetik, sektoreka lantuko du gaia, eta bestetik Udalbiltzarekin egun eta ordu iraunkorrik zehaztuko dituzte EHNA egin nahi duten herritarren eskura jartzeko. □

### JASOTA BEZALA

#### Lapurreta jasan duen amonaren senideak

Azaroaren 26ko gertakariak zeresan eta nahaste borraste ugari sortu ditu nonbait. Gure amonak, beste askotan bezala, herrira igo eta pentsioa kobrau ondoren, etxera bueltan, emakume gazte bat segika ari zitzai onaren susmoa hartu zuen. Etxeko atarira iritsi eta emakume hau amona eta beste bi bizilagunekin portaleera sartu zen. Besteie zein pisutara zihoa zen galdeku eta gero, lehenik beste bien pisuko botoiarri eman eta haiek jaitsi zirenean, amona gora behera eduki zuen igogailuan, dirua lapurtu zion arte. Amona etxera sartu eta berehala konturatu zen dirua falta zitzaiola (giltzak atera zituen portaleko atea irekitzeko diruaren sobrean bertan zuen). Amona konturatu orduko, etxetik atera zen, harekin topo egiteko asmotan. Auzokide batekin topo egin eta halako ezaugarriak zituen emakume gazte bat ikusi ote zuen galdeku zion. Auzokideak baietz esan eta Politenaren ingurura korrika sartu zela esan zion. Bertatik, mugikor batekin, kutxara deitu zuten, kartila anulatzeko eta Ertzaintzari lapurreta

salatzeko asmotan. Ertzaintza etorri zeanen Politenara sartu eta bertan zeuden pertsonen karnetak erakutsi eta gero, amonak haietako bat, igo-gailuko emakumea bezala identifikatu zuen. Hernaniko Kronikan abenduaren 2an azaldzu zen artikuluan identifikatu zuen pertsonaren lagunek ziotenaren arabera "gure amonak ez du emakume hau inoiz ikusi eta dagoeneko esan du bera izan dela". Igogailuan nahiko tarte izan zuen emakume horren aurpegia ezagutzeo, eta gero birritan, hainbat argazkien artean, pertsona bera identifikatu du. Hortaz argi gelditzen da, lapurreta gertatu dela eta gure amonak egoera desberdinaren emakume hau identifikatu duela. Honen ondorioz sortu diren esame-sak tokirik ez dute. Esaten da, gure amonak lapurreta asmatu duela, auzokideak eta herritarra kontra jartzeko. Horixe ederra, gure amonak okupak zeudenik ere ez zekien behintzat eta.

Baina gauza ez da hemen bukaten, gertakariak gehiagorako ere eman du. Gure sorpresarako, abenduaren 10ean, Gara irakurri eta iriztietan berriz ere gertakarien berri.

Artikulua Xabier Silveirak idatzitako da eta berari lau hitz esan nahi dizkiogu. Batetik, eta batez ere, hurrengo batean gertakari batu buruz idatzi behar duenean, informazio faltsurik ez erabiltzeko eta jakinaren gainean idazteko. Bere hitzetan, lapurreta "ustezkoa" izan da, baina ziurtasun handiz honako baieztape-nak bota ditu: "kontua da, ustez lapurreta egin dioten emakumea, heroinazale errekonozitua eta kolo-re guztiako poliziakideen salatarria dela. Zer lapurtu zion? Meta-dona? Zenbat gramo zaldi ordainduko zizkioten salaketa faltua egiteagatik?"

Barkatu baina gure amonaren errealityea guzti honetatik oso urrun dago. Gu ere herritar arruntak gara eta jakin badakigu gure herrian egoera injustu asko jasan behar ditugula egunero. Baina, oraingoan zure baieztape horiek ez dute ez hankrik eta ez bururik.

Bukatzeko zera esan nahi dizut: gurea den prentsa modu egokian erabili eta zaintzeko.

Bixen Ezeiza  
Familiaren izenean



**Yone**  
boutique  
Kale Nagusia 63

Aurtengo Gabonetan  
PREZIO BEREZIAK  
• %20  
deskontua


**AMEGAR**

Etxe tresnak  
Altzariak

Elektrogailuak  
TB- Bideoak-  
HI-FI-Opariak

Sukalde altzariak

Tel.: 943 55 11 25  
Faxa: 943 55 16 03



Manuel Sagarna begiak bete egin zitzaizkion omenaldian.

## Manuel Sagarnak omenaldi bera eta hunkigarria jaso zuen

■ Agur omenaldi jendetsua izan zen Udaletxean ■ Sagarnak 54 urte egin ditu Bandan, eta 21 zuzendari.

MANUEL Sagarna Goiburu Musika Bandako zuzendariak omenaldi bera eta hunkigarrria jaso zuen Udaletxean, bere azken kontzertua eman aurretik. Joxan Rekondo Alkatea, Beatriz Fernandino kultura zinegotzia eta Juan Arzallus

Bandako lehendakaria izan ziren, besteak beste ekitaldian. Aretoa, berriz, txiki gelditu zen Sagarna eskerrona era-kutsi nahi ziotenentzako. Juan Arzallusek oroigarri makila eman zion 21 urtez zuzendari izan denari. □



Santo Tomasetako postu bat Inmaculada ikastetxearen.

**Santo tomasak ikastetxeetan.** Santo Tomas egunarekin Hernaniko ikastetxeetan ekitaldi bereziak izaten dira urtero: txistorra ez ezik, barazki postuak, lehiaketak eta abar. Atzokoan, txistorra barruan jateko giro hobea egin zuen.

### HITZ BITAN

#### ✓ ELUR-TXORI

**Mus txapelketa.** Gaur asteazkena, buruz buruko partidak jokatuko dira Elur-Txorin: Burugain/Joxe; A.Uriarte/P.Valero; Otegi/Arozamena; I.Imaz/Txaton; Lapazaran/J.R. Zubillaga. Bihar, osteguna, berriz: Lopez/Bilbao; Bilbao/Aierdi; Mellado/Karrera; Esnal/Ormazabal; Lopez/Joxan. □

### ZERBITZUAK

#### TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103
- Alkoholiko anonimo: 943 331103

#### FARMAZIAK

- Egunez: Etxebeste Elkano 2  
☎ 943 552087
- Gaez: Oa Usurbil. Polígono 1, 1  
☎ 943 376076

### IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Etxebizitza salgai herrikitik gerto. Hiru gela, kalefazioa, lur zatia, txokoa eta aterpea. Interesatuek deitu: 635 75 86 61